



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Zuk Zeuk Egizu filosofian
ardaztutako musika-eszena
(trans)feministen gorputz-
etnografia bat: oihuak, praktika
izerberak eta gorputz politiko
grinatsuak**

Udane Barinagarrementeria Laka

85-92 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.10>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



Zuk Zeuk Egizu filosofian ardaztutako musika-eszena (trans)feministen gorputz-etnografia bat: oihuak, praktika izerberak eta gorputz politiko grinatsuak

Udane Barinagarrementeria Laka
AFIT ikerketa taldea
udane.barinagarrementeria@ehu.eus

Laburpena

Euskal Herrian Zuk Zeuk Egizu filosofian eta politika (trans)feministan oinarritutako musika-eszenetarako hurbilpen etnografikoa du oinarri artikulua honek. Etnomusikologian, teoria zein antropologia (trans)feministan eta gorputzaren epistemologian zimendatuta, espazio horietan gorputzen ari diren esku-hartze politikoa pentsatu eta gauatzeko moduak identifikatzea izan da xedea. Praktika musikalaren eta politika (trans)feministaren bat-egiteetan fokua jarrita, eszena hauetan ematen diren gorputz-praktikei eta emozioen konfigurazio kolektiboari erreparatu zaie, hauek politika (trans)feminista egiteko moduaz esan dezaketena esploratzeko.

Hitz gakoak: musika-eszena, Zuk Zeuk Egizu filosofia, (trans)feminismoa, gorputza, afektuak.

Abstract

This article is based on an ethnographic approach to music scenes in the Basque Country that are rooted in the Do It Yourself philosophy and (trans)feminist politics. Grounded in ethnomusicology, (trans)feminist theory and anthropology, and the epistemology of the body, its aim is to identify the ways in which political interventions are conceived and enacted within these spaces. Focusing on the intersections of musical practice and (trans)feminist politics, the study examines bodily practices and collective emotional configurations within these scenes, exploring what they reveal about ways of engaging in (trans)feminist politics.

Keywords: music scene, Do It Yourself philosophy, (trans)feminism, body, affects.

1. Sarrera eta motibazioa

Musika oro, soinuaren antolaketa oro, komunitate bat sortzeko eta sendotzeko tresna da, komunitate horren entzunarazteko moduak adierazten dituen (Attali, 1985: 6). Hargatik, aktibismo (trans)feministarentzat¹ berariazko esparru (izan) da musika; berau politika (trans)feminista egiteko espaziotzat hartuta, musika-genero desberdinen orbitan askotariko adierazpen kulturalak artikulatuz joan direlarik.

Adierazpen kultural horien baitan koka daitezke euskal testuinguruan Zuk Zeuk Egizu (aurrerantzean, ZZE)² filosofian ardaztuta sortuz joan diren musika-eszena (trans)feministak, artikulua honen oinarri den ikerketan³ ikergai lez zehaztutakoak, hain zuzen. Filosofia horrek punk

¹(Trans)feminista erabili dut ikerlanean zehar. Ikerlan honen proposamena politikaren eta kolektiboaren ikuspegi transfeminista batean kokatzen baita, sinetsita, proposamen ideologiko eta politiko honek erradikaltasuna berreskuratzea ekarri zuela, aliantza politikoak biderkatzea eta identitateak betiko desesentzializatzea. Baina akatsa deritzot transfeminismoa, feminismoaren gainditze gisa ulertzeari. Gainera, euskal testuinguruan musikaren esparruan egindako ibilbideari erreparatuz gero, feminismoaren aterkipean eraikitako genealogia oso bat dago, honelako lan batek ezinbestean aitortu behar duena. Hargatik, banalerroa lausoa eta mugikorra dela ulertu, muga potentzialitateari heldu eta dualismoak gainditzeko saiakera da parentesiaren erabilera, nire enuntziatu-lekua adierazteko ez ezik, musikaren esparruan egiten den politika izendatzeko ere erabiliko dena.

²Zuk Zeuk Egizu edo *Do It Yourself* filosofiak (ZZE edo DIY gisa adierazi ohi denak) punk mugimenduaren ideologia eta jarduteko etika bat zehazten du. Kontsumo-sistema kapitalistaren alternatiba gisa azaltzen den ideologia edo bizitza forma bat da: espezializazioa baztertu eta ekintzara gonbidatzen duen bizi-praktika bat, autonomiaren bilaketan fokua jartzen duena, norbere kabuz egitera. Hala, kontsignen artean azaltzen dira autokudeaketa (finantziabide alternatiboen bilaketarekin), egiten duenaren eta kontsumitzen duenaren arteko haustura, eta bere jatorria eta prestakuntza zeinahi izan da ere edonork sor dezakeenaren ideia (Alcántara, 2015). Hargatik, autogestioa ardatz hartuta, sareak eraikitzea da filosofia honen helburu nagusia, edonork parte har dezan.

³*Euskal Herriko musika-eszena (trans)feministen gorputz-etnografia bat: elkarrekikotasunak, afektuak eta berresanahitzeak* (2024) Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterreko Master Amaierako Lana da artikulua

mugimenduan du jatorria eta autogestioa, ekitearen etika, profesionalizazioa baztertzea, elkarlana eta saretzea ditu funtsezko elementu. Hargatik, punk mugimenduaren baitako subjektu (trans)feministentzat neurri egindako esperientzia musikalak artikulatzeko akuilu izan da (Alcántara, 2015). Izan ere, subjektu (trans)feministak, punk eszena zabalean jasaten zituzten bazterkeria-egoerez -eszenaren baitako matxismoaz bereziki- hitz egiten eta idazten hastearekin batera, mugimendu horren tresnak erabiliz eszena propioak sortzeari ekin zioten.

Nazioartean politika (trans)feminista eta ZZE filosofiaren bat-egiteetatik eratu diren eszenen ikerketei jarraika, espazio horietan esperientzia musikalaren askotariko dimentsioak berpentsatzen eta eraldatzen dihardute, musikaren esparruko genero-antolaketa eraldaketara zuzendutako estrategiak eta praktikak gauzatzen. Eta, aldi berean, eztabaida ideologiko sakonak eta esku-hartze politikorako modu berriak pentsatzen eta gauzatzen ari dira, praktika sozial eta kultural askotarikoekin elkarerraginean (Liska eta Martinez, 2022). Hargatik, espazio pribilegiatu dira testuinguru sozial, kultural eta politikoaren berri emateko. Ikerketan honetan funtsa, hain zuzen, Euskal Herrian artikulatzen ari diren eszena hauetarako hurbilpen etnografikoa da, horrek euskal testuinguruan garatzen ari diren politika pentsatzeko, ulertzeko eta egiteko modu berriak antzemateko balio dezakeela usteta (ikus, esate baterako, Esteban, 2020).

Hurbilpen etnografikoa diseinatzerakoan, gorputz-etnografia bat josteko saiakeran, gorputz epistemologiak izan dira erreferentzia nagusi eta gorputzaren antropologiaren proposamen teoriko-metodologikoak helduleku. Abiapuntu horretatik, hiru estrategia metodologiko hauek erabili dira erreminta gisa: pertzepzio parte-hartzailea⁴, erdi-egituratutako elkarrizketa sakonak eta dimentsio autoetnografikoaren lanketa. Hala, Euskal Herriko txoko desberdinetan Zuk Zeuk Egizu filosofia eta politika (trans)feminista oinarri dituzten musika-ekimenak izan dira jo-muga landa lanean. Hauen baitan, musika-eszenak osatzen dituzten askotariko jarduerak jaso nahian, ekimen desberdinak ezarri dira behaketa-objektutzat: aipatu bi oinarriak dituzten musika jaialdi eta jardunaldiak; ikuspegi (trans)feminista bere gain hartzen duten musika taldeen zuzeneko emanaldiak edo kontzertuak; eta musika eta (trans)feminismoa gai zentralizat duten hitzaldiak, mintegiak, tailerrak edo proiektzioak.

Halaber, berriemaileen profila zehazteko, eszenaren baitako ekimen desberdinekiko engaiamendua ezarri da irizpide nagusitzat. Engaiamendu mota desberdinei leku egin nahian, alde batetik, eszenako parte-hartze motak izan dira irizpideetako bat (antolatzaile, musikari, teknikari, ikusle), baita ekimenen iraupena eta ibilbidea ere; azkenik, berriemaileen profila aberasteko asmoz, adina, jatorria, eragin-eremua, generoa ere hartu dira aintzat. Horrenbestez, sakoneko elkarrizketak egin dira hiru jaialdiren talde antolatzaileko kideekin: Mefsst! Musika Errebolta Feminista (Zarautz, 2014-2024), Oñatiko Kallejeruak (Oñati, 2022-2024) eta Asteriskes Kolektiboa (2021-2024)⁵. Horrez gain, haien musika-taldea (trans)feminista izendatzen duten musikari zenbait ere elkarrizketatu dira: Zetkin (Baiona), Itzala (Araba Mendialdea - Lizarraldea) eta Ginger (Zarautz) taldeetako kideak. Bestetik, dimentsio autoetnografikoaren lanketa, musikarekin eta ZZE eszenekin izandako harremanaren azterketaren baitan, Markina-Xemeingo Akerbeltz Gaztetxean antolatutako Bertsio Gaueko⁶ parte-hartzearen esperientzian zentratu da, 2023ko abendutik 2024ko martxora bitartean.

honek oinarri duen ikerketa. Miren Guilló eta Mari Luz Esteban tutoreak eta Jone Miren Hernandez izan ditut gidari eta aholkulari lanetan.

⁴Sarah Pinkek pertzepzio parte-hartzailea (*participant sensing*) (2009: 65) proposatzen du antropologiaren oinarritzko teknika den behaketa parte-hartzailean begiek duten nagusitasuna berpentsarazteko. Proposamen honek, plano teorikotik harago, etnografoaren eremu praktikoa hartzen du eta bere potentziala areagotu egiten du, gorputza eta sentzorialitate osoa gogoetarako iturri gisa erabiltzen duelarik. Hala, etnografia-lanak egiteko erreminta metodologiko kritiko aproposa da, gizartea eta kultura aztertzeiko ikuspuntu feminista transbertsala eskaintzen baitu. Kasu honetan, behaketa-fitxa bat erabili da, besteak beste, honako dimentsioak zehaztuta: espazioa eta haren antolaketa, mezuak, parte-hartzaileen profila, oholtzako eta oholtzaz kanpoko gorputz-praktikak, giroa, usainak, afektibitatea, izandako sententzioak eta elkarrizketak.

⁵Sakoneko elkarrizketa erdi-egituratuetarako, hurrengoak izan dira zehaztutako gaiak: musikarekiko harremana, talde-antolatzailearen eta jaialdiaren sorrera eta ibilbidea, ikuspegi politikoa eta estilistikoa (musika-kategoria estilistikoen inguruko hautuak, alegia), antolaketa-formak eta lehentasuneko dimentsioak (eta bereziki, antolaketa horretan zaintzak eta plazerak duten lekua), espazio seguruen ulerkeria eta kudeaketa, lorpenak, tentsioak eta erronkak.

⁶Zuk Zeuk Egizu filosofian oinarrituta dago Bertsio Gauda ekimena. Musika talde baten bertsioak jo eta imitatzean datza proposamena, eta beraz, espazio musikala eta oholtza zabaltzea parte hartu nahi duen edozeinentzat.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Nazioartean adierazpen kultural honen analisiari heldu dioten ikerketek, nagusiki, jatorrizko Riot Grrrl eta Queercore mugimenduei erreparatu diete; 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990ko hamarkadaren hasieran AEBtan punk eszenen haustura gisa sortutako ZZE eszena queer eta feministei, alegia⁷. Badaude, halaber, testuinguru desberdinetan, XXI. mendeko eta egungo ZZE eszena-feministen konfigurazioei erreparatu dietenak⁸. Ikerketa hauek, eszena (trans)feministak ZZE kultura sortzaile zabalagoaren barruan kokatzen dituzte, antolaketa- eta praktika-politikorako modu desberdin eta propioekin. Gainera, beste esparru musikaletan baztertuta dauden subjektuen inklusioa, musika-hibridazioa edota politika ekonomikoekin lotutako eztabaida mamitsuen berri ematen dute. Orobat, espazio hauetan praktika musikaren berresanahitzea ematen dela ondorioztatzen dute ikertetek, eta, baita, politika (trans)feminista egiteko modu propio bat ere, nahiz eta mainstream-ean eta produkzio akademikoan oharkabe igaro(tzen) diren.

Euskal testuingurura etorrira, azken hamarkadan jaialdi, ekimen eta proposamen desberdinak sortuz joan dira, ZZE eszena (trans)feministak manera propioetan artikulatzen doazelarik (Mefsst! Zarautzen eta Zumaian, LadyFestak Iruñean, Nesken Gauak Bilbo-Basaurin, Egun Okerrak Araba Mendialdean, etab.). Aldi berean, feminismoaren eta musikaren arteko harremanaren auzia eta kezka azaleratu dute hainbat autore eta ikerlarik, sakoneko ikerketa falta nabarmentzearekin batera (Altuna, 2010; Lopez, 2014; Retolaza eta Gutierrez, 2014; Aranguren, Fernandez, eta Lopez 2016; Ruiz, 2022; Akizu, 2023).

Silvia Solerren (2016) lanak oinarri hartuta, Maialen Akizu ikerlariak (2023) azaltzen duen bezala, pluralismo metodologiko eta historiografikoa duen ezagutza-eremua da musikologia feministarena, eta azterketa-ildo nagusien artean ditu berrirakurketa historikoa, ikerketa orekatzailea (datu bilketa eta biografietan oinarritua), irakaskuntza-ikasketa prozesuaren inguruko ikerketa eta genero-rolen eta identitateen eraikuntzarena. Ikerlariari jarraikiz, Euskal Herrian, bibliografia topatzeko zailtasunak edo bibliografia ezak berrirakurketa historikoa egitea oztopatu du, baina genero-identitateen eraikuntzari dagokion azterketa-ildoan koka daitezkeen lan batzuk egin dira azken urteetan (Retolaza eta Gutierrez, 2014; Lopez, 2015; Ruiz, 2022; Akizu, 2023; Esteban, 2023).

Euskal testuinguruan musikologia feministaren azterketa-ildo horretan sakontzeko saiakeran, etnomusikologiaren diziplinaren baitan ikerketa performatiboen eta generoaren azterketa-esparruan garatu den ikuspegi analitiko bati heldu nahi izan zaio ikerketa honetan: musika- zein dantza-emanaldietan gizakiek nola parte hartzen duten ikertzen duenari, horretarako gorpuztasunaren dimentsioari erreparatuta. Izan ere, azken hamarkadetan sortu eta aberastuz doan gorpuztaren antropologiaren eredu teoriko-metodologikotik, haragiaren materialtasuna eta konfigurazio prozesuak zentzu eta maila analitiko desberdinetan ulertzeko proposamenak eratu dira (Guillo, 2020). Eta bide beretik, gorpuztaren gizarte teoriak azaldu du gorpuztasunaren berrantolatzea eta birkontzeptualizazioa dakarrela praxi sozialean gertatutako eraldaketa esanguratsu orok eta, berreratze horrek, subjektibotasuna eta ekintza indibidual zein kolektiboa formulatzeko beste modu bat inplikatzeko duela (Esteban, 2015).

Musikaren esparrura ere heldu da gogoeta-bide hori, Susan McClaryk (1991) ohartarazi bezala, musikaren inguruko teorian eta ikerketetan ukatu egin izan baitira gorpuzt-esperientziak, baina azken urteotan, hainbat pentsalari feministak bazterketa hori salatu dute, eta ezagutza sortzerakoan gorpuzt-esperientziez jarduteko beharra aldarrikatu, gorpuzturiko subjektuak hizpidera ekarriz (Esteban, 2009, 2015; Retolaza eta Gutierrez, 2014).

Testuinguru analitiko honen baitan, Mari Luz Estebanek (2009) "gorputz politikoa" adiera darabil, irudikapen, irudi, ideia, jarrera, teknika eta jokabide gorpuztuen multzo artikulatu bat adierazteko, zeina gizarte-mugimendu batetik kontzienteki edo inkontzienteki sustatutako gorpuzt-konfigurazio jakin bat den, maila indibidualean eta kolektiboan gauzatzen dena. Pertsona, generoa eta gizarte-harremanak ulertzeko modu zehatzak dakartza, baita errealitateari aurre egiteko, erantzuteko edota aldatzeko (gutxienez, saiatzeko) moduak ere (Esteban, 2009). Hau horrela, lan honetan

⁷Ikus, esaterako, DeChaine, 1997; Fenster, 1993; Marcus, 2010; Nguyen, 2012.

⁸Britainia Handian (Lohman, 2021), Australian (Sharp eta Nilan, 2015), Latinoamerikan (Cuellar, 2023) zein Espainiar Estatuan (García, 2014).

bizituriko gorputz dinamiko, erlazional eta materialaren ikuspegia izan da oinarri, eta Elsa Muñizen (2014: 10) proposamenari jarraiki, gorputz-praktikak izan dira ikergai eta analisi kategoria. Alegia, gorputza ikergai bilakatu baino, fokua praktiketan jarri nahi izan da, horien bitartez eratzen eta materializatzen baitira subjektuak, baita genero-subjektu gisa ere (Muñiz, 2015: 52).

Hala, aipatutako musikaren eta feminismoaren harremanari buruzko ikerketak, nazioartean ikergaiaren inguruan egindako lanak eta gorpuztasunaren inguruko ikuspuntu teoriko-metodologikoak abiapuntu izanik formulatu da ikerlanaren jomuga eta norabidea. Halaber, Euskal Herrian azken urteotan bizitzen ari garen krisi eta gizarte-aldaketa testuinguruan, politika pentsatzeko, ulertzeko eta egiteko garatzen ari diren modu berrietara hurbiltzeko, herri-mugimenduetan dauden gogoetak eta horien inguruko ikerketak izan ditut erreferentzia; besteak beste, partaidetza, interseksionalitatea, mugimendu desberdinen arteko aliantzak, subjektu politikoak, zaintza, zaugarritasuna eta festa-politiken inguruan egindakoak (besteak beste, Luxán et al., 2014; Guilló, 2016; Epelde, Pagola eta Retolaza, 2018; Esteban, 2020).

Horrenbestez, Euskal Herrian Zuk Zeuk Egizu filosofia oinarri hartuta eratu diren musika eszena (trans)feministetara hurbilpen etnografikoa egitea izan da ikerlanaren helburu nagusia, espazio horietan egiten diren proposamen, hausnarketa eta praktikak aztertzeko. Helburu nagusi horren baitan, helburu zehatzagoak formulatu dira, ikerlanaren bi norabide zehatzu direlarik, bata bestearekin harremanetan. Alde batetik, musikagintzaren esparruan egiten diren ekarpen (trans)feministen berri izan nahian, musikaren esparruko genero-antolaketaren eraldaketarako proposatzen diren hausnarketa eta estrategiak antzemateko. Eta, bestetik, espazio horietan gorpuzten ari diren esku-hartze politikoa pentsatu eta gauzatzeko moduak identifikatzea izanda xedea, praktika musikalaren eta politika (trans)feministaren bat-egiteei erreparatuta. Horretarako, eszena hauetan ematen diren gorputz-praktikei eta emozioen konfigurazio kolektiboei erreparatu zaie. Artikulu honetan, baina, bigarren helburuarekin lotutako analisi eta ondorioak jaso dira. Biak ala biak mamitsuak izanik ere, haietako batean apur bat sakontzeak gehiago merezi duelakoan eta irekitako ikerketa-bide honek etorkizunerako esplorazio-eremu emankorra eskaintzen duelakoan.

3. Ikerketaren muina

Praktika musikalak, soinuarekin batera, gorputza du kokaleku eta adierazpide, praktika musikala gorputz-praktika baita funtsean. Hargatik, ikerlanaren analisiaren mamia jasotzen duen atal honetan, eszena hauetan ematen diren gorputz-praktiken eta emozioen konfigurazio kolektiboen analisia jaso da, hauek politika (trans)feminista egiteko moduaz esan dezaketena esploratzeko. Horretarako, bi gorputz-praktika edo adierazpen nagusitan jarri da fokua (garrasiak eta izerdia), hauek espazio hauetan azaltzen diren emozioekin lotuz.

3.1. Oihuak. Amorruren eta zaugarritasunaren bozgorailu

Oihu, garrasi, txilio egitea da punk musikaren ezaugarri nagusietako bat. Musika-eszena hauetan, punkaren erroak dituzten estilo musikalak presentzia nabarmena dute. Hargatik, oihukatzea oholtza gaineko zein azpiko gorputz-praktika ohikoetako bat da: garrasi eginez abestea, publikoak errepikak egitea, abestiak bukatzean aldarri politikoak oihukatzea. Praktika musikala ezaugarritzen duten oihuak, amorrua, gorrotoa edo haserrea bezalako emozioak adierazteko mekanismo dira. Salaketa eta aldarrikapen politikorako bitartekoak dira, kasuan kasu, musika taldearen ideologia politikoari jarraiki pentsatu eta gauzatzen direnak. Baina, musika talde batzuen kasuan, bi norabidetakoa da amorrua eta gorrotoa ateratzeko gorputz-praktika hau: salaketarako ez ezik, norbere hauskortasunak eta kontraesanek sortutako amorru eta frustrazioari lekua egiteko ere bai baita. Horrenbestez, subjektu zaugarri izatearen kontzientziak eta horrek dakartzan minak, zalantzak eta beldurrak konpartitzeko bitarteko ere bada oihu egitea: “zaugarritasun partekatua, indar gotorlekua” (Ciclogenesi Explosiva, 2023) ideia darabilte Itzala taldekoek hori adierazteko.

Judith Butler eta Adriana Cavareroen lanetan oinarrituta, Maria Zapatak (2023) proposatzen duen zaugarritasunaren adierak janzten du aipatutakoa, zaugarritasunaren kontzientzia izatea sendotasunik handiena dela argudiatzen baitu autoreak ere. Izan ere, hauskortasuna eta ahultasunaren arteko bereizketa eginda, zaugarritasuna lehenengoarekin lotzearen garrantzia azpimarratzen du antropologoak. Zaugarritasunaren kontzientziak politika (trans)feministarako daukan potentzia azpimarratzen du Zapatak; alde batetik, hauskorak izatearen erru eta lotsatik askatzea ahalbidetzen

duelako, eta, bestetik, ondoeza eta plazera elkarlotzeko aukera irekitzen duelako (Zapata, 2023). Abiapuntu horretatik, espazio (trans)feminista hauetan, subjektuen dimentsio zaurgarria publikoki elkarbanatzen eta adierazten da praktika musikaren bidez. Abestien letretan ez ezik, baita musika jotzeko eta oholztan egoteko moduan ere, hauskortasuna, mina eta frustrazioa gorpuztuz oholztza gainean.

Baina bi dimentsio hauen bat-egitea, oholztza gainea praktika musikaetik haragokoa da, praktika politikoa ulertu eta egiteko modua ere islatzen baitu: “Uste dut oreka horrek leku handia duela topaketa hauetan. Eta ezinbestekoa iruditzen zait, borroka bat ere egiten ari garela. Ondozak, zapalkuntza, indarkeria... badaudelako. Orduan, uste dut, gero eta gehiago nahasten dela hori guztia: xamurtasuna eta amorrua eskutik doaz. Eta bata bestea gabe ez diot zentzurik ikusten”⁹ (Rak, Asteriskes kolektiboa). Eta politika egin eta ulertzeko modu horrek inplikazio konplexuak ere badarkatzala azpimarratzen dute talde-antolatzaileetako kideek. Kolektiboki egiten den jardun politikoan, balizko berdinen arteko espazioan ematen diren botere-praktiketan fokua jarri beharra baitakar politikaren ulerkerari. Elkarriketateak aipatzen dutenari segiz, ekimen bat antolatzerako orduan botere-jardunek kolektiboaren parte direnengan eragiten dituzten amorru eta frustrazio sentimenduei espazio kolektiboan lekua egin beharra leke, eta baita zaurgarritasunaren ulerkerari politikoa ere, horrek dakartzen behar eta gatazkei heltzeko.

Ariana S. Cotak (2019) proposatutakoari jarraiki, agentzia garatzeko ahultasunak gaintu behar direlako ideia baztertu eta agentzia kolektiboa egoera zaurgarria onartuta bakarrik gara daitekeela onartzeko saiakera izan daiteke adierazitakoa, “elkarrekin egotearen” eta “elkarrekin gauzak egitearen” bidez gauzatuko litzatekeena, elkarrekin gauzak egiteko prozesuan zaurgarritasun-egoera eta -maila desberdinek dakartzaten askotariko gatazkak kolektiboki kudeatuta. Horrenbestez, eszena hauetan gorpuzten diren oihuek aditzera ematen dutenez, zaurgarritasuna eta agentzia kolektiboa lotzerakoan, zaurgarritasuna agentzia kolektiboaren aukera eta baldintza gisa ulertzeko proposamenarekin bat egiten da.

3.2. Izerdia. Praktika izerberak eta plazer-praktikak

Lehen aldiz oholztza gainean baxua jotzen aritu nintzeneko esperientzia idaztean, oholztza gainean egotearen deserosotasuna adierazteko elementu gisa agertzen zitzaidan izerdia, esperientzia zail bat gorpuztea emanez aditzera. Eta zailtasun hori berresten du Zetkin taldeko baxujolearen kontakizunak ere, haien lehen kontzertua gogora ekarri; espazio publikoa hartzeko zilegitasunik ez sentitzearen aurka borrokatzearen zailtasunaz dihardu bere esperientziaren kontakizunak.

Esperientzia hauen teorizazioaren xerkan, Sara Ahmeden (2018) subjektu borondatetsuen markoa ulergarri izan daiteke. Izan ere, subjektu feministen egunerokotasunean deserosotasunak etengabeko presentzia duela azaltzen du autoreak, eta deserosotasun horrek kontzeptu izerberak sorrarazten dituela (2018: 101). Ahmeden arabera, kontzeptu izerbera bat zaila den gorputz-esperientzia batetik erator daiteke, munduari aurre egiteko edo berau eraldatzen saiatzeko esperientzia praktikoetatik. Praktika musikala politika (trans)feminsitarako espaziotzat ulertu eta espazio publikoa hartzea izan liteke, hain justu, subjektu feministen esperientzia praktiko horren adibideetako bat. Izerdia korporala baita, zenbat eta esperientzia intentsioagoa, are agerikoago azaltzen dena.

Landa lanean aurrera egin ahala, ordea, elementu bera bestelako esanahi eta praktikekin lotuta azaltzen joan da, izerdia espazio hauetan presentzia nabarmena duen elementu gisa agertzen delarik. Zetkin taldekoek, esaterako, bideoklip baten grabaketa prestatzen ari zirela-eta, izerditan dauden gorputz disidenteak agertzeko eskaria egin zuten, askatasunarekin, boterearekin eta jardun politikoarekin lotzen dutelarik berau. Espazio publikoa hartzearekin eta genero-mandatuak urratzearekin du zerikusia aipatutako jardunak: araztasuna, diskrezioa edo pasibitatea baztertzearekin, alegia.

⁹ Jatorrizko aipua (itzulpenera egilearena da): “Ese equilibrio creo que tiene mucho espacio en estos encuentros. Y me parece imprescindible porque estamos también haciendo una lucha. Hay malestares, hay opresión, hay violencia todo el rato... Entonces creo que cada vez más se fusiona todo esto: la ternura y la rabia van de la mano. Y que la una sin la otra tampoco le veo sentido”.

Bide beretik, Laurent Garnier eta David Brun-Lambertek (2006), dantzalekuak espazio politiko gisa ulertuta, dinamika sozial berriak sortzeko daukaten potentzialitatea azpimarratzen dute. Autoreek diote dantza-pista bat ez dela inoiz leku neutroa; oroz gain, askatasun- eta transgresio-eremu bat dela, beste inon ez bezala, belaunaldi berri bakoitzak aurrean dituen unea eta erronkak biltzen dituen gunea. Alaitasunari, norbere burua aurkitzeari eta elkarrekintzari emateko praktika kolektiboari ematen die bide dantza kolektiboak, eta haren parte direnek, kanpokoaren, "errealaren", mehatxatu eta zarrastatzen dituenaren aurka aliantzak egiteko espazio bihurtzen da (Garnier eta Brun-Lambert, 2006). Dantzalekuaren ulerkera hau zuzeneko kontzertu baten maila orokorragora ere eraman daiteke, musika jotzen eta dantzatzen den espazioa hartuta. Zetkin taldekoek azaltzen duten bezala, espazio publikoa eta musikala eraldaketa sozial eta politikorako esparru diren heinean, praktika politiko horren adierazpen korporalak dira praktika izerberak. Eta, gainera, boteretze-prozesuen espazio publikoetako esperientzia praktikoen infrentzua ere adierazten dituzte: dakarten esfortzua, deserosotasuna eta zailtasuna.

Halaber, plazeraren gorputz-adierazpen gisa ere azaltzen zaigu izerdia esperientzia desberdinetan. Pogo¹⁰ batean izandako esperientzia pertsonalean, dantza praktika kolektiboan zehar bizitako plazeraren adierazgarri da izerdia. Mefsst! jaialdiaren antolatzaileek ere "gorputza eta plazera ardatz, izerdia botatzeko espazio baketsu bat izatea lortu dugu" (Aranguren, Fernandez eta Lopez, 2016: 142) aipatzen dute, jaialdia plazererako espazio askea izatea helburu, nahieran adierazi eta mugitzeko espazioak sortzearen garrantzia azaleratuta.

Horrenbestez, espazio publikoan praktika musikalaren bitartez politika egiterakoan agertzen den beste elementu zentral bat ere iradokitzen du izerdiak. Eta, Muelas de Ayalak (2023) proposatzen duen plazer-praktika feministen adierak, musika-eszena (trans)feministako praktika musikalarekin lotuta plazerak duen esanahia eman dezakete aditzera. Gorputz-praktika kolektibo gisa azaltzen baitira plazer-praktikak, testuinguru (trans)feminista batean politikoki kokatuta, eta gozamina da elementu zentrala. Izerdiak, hain zuzen, gorputzen arteko elkarrekintzan, gozamina, esplorazioa, osatzea, lasaieria eta nolabaiteko extasi kolektiboa islatzen ditu.

Dimentsio kolektiboa eta politikoa barne hartzen dituen prozesu gisa ulertuta, gozamenak, mugimendua, dinamikotasuna eta berriz esperimentatzeko gogoak dakartza. Hargatik esperientzia hori esperimentatu, interpretatu eta kuestionatzeko espazioak sortzea eragiten du (Muelas de Ayala, 2023). Eta bide horretan, hainbat gatazka ere planteatzen ditu, subjektu desberdinek gizarte-egituran dituzten posizioak, eta jasaten dituzten zapalkuntza-sistemen atzean dauden mekanismoak argitzeko gune pribilegiatu bihurtuz. Izan ere, ekimenen antolatzaile diren kolektiboen baitan plazeraren inguruko hausnarketa, eztabaida eta praktikek leku zentrala dute, kontzertu-gunea plazer-gune bihurtzen baita, eta plazera pertsona guztiek eskura izan dezaten saiakera egiten da talde antolatzaileetatik, beren beharrianak, zailtasunak eta gizarte-kokapena kontuan hartuta. Hausnarketa, eztabaida eta bilaketa kolektibo horretan, hainbat gatazka azaltzen dira, denentzako plazererako espazio seguruak konfiguratzeko erronkari jarraiki. Hausnarketa hauek genero-sistemaren baitan dauden gatazka sozial eta kulturalen berri ematen digute, plazererako irispidean agertzen diren desberdintasunen eta subjektu batzuek gozatzeko duten zilegitasunaren mugen bidez.

Plazer-praktikak, beraz, praktika izerberak dira: gorputzen elkarrekikotasunetik, zailtasuna bidelagun, eraldaketa sozial eta politiko (trans)feministarantz zuzenduta daude. Hala, praktika izerberak subertsioa eta plazera elkarlotzen dituzten gorputz-praktika kolektiboen berri ematen digute; eraldaketa soziala ulertu eta egiteko modu bat adierazten dute, jardun politiko horrek dakarren deserotasan eta zailtasuna agerian utzita, baina baita plazer-espazio material eta sinboliko alternatiboen eraikuntzak dakarren boteretzea ere.

3.3. Gorputz politiko grinatsuak

Espazio hauetan eszenaratzen diren emozioen konfigurazioei erreparatzean, plazeraren lorratzei jarraiki, agerikoa da grinak eta pasioak hartzen duten garrantzia. Arestian aipatu bezala, askotariko

¹⁰Pogoa edo pogo-dantza, nagusiki punk eta hardcore musika zuzenekoetan, lehen lerroetan egiten den dantza-praktika da, modu espontaneoan eratu ohi dena (Griffin, 2012; Ruiz, 2022). Aipaturiko pasartea, landa lanean zehar Belako taldeak Portuko Ranpan (Ondarroa) emandako zuzenekoan kokatzen da.

gorputz-adierazpenei lotuta azaltzen dira: garrasia, izerdia, dardara. Larruazalean adierazten dira, eta larruazalaz haraindi, oholta, dantzalekua, espazioa hartzen dute.

Euskarazko 'grina' terminoak, Labayru Hiztegiaren arabera, hiru multzotan bil daitezkeen adiera desberdinak har ditzake: alde batetik, pasioa, irrika, zalekeria, amorrua eta apetaren sinonimo gisa erabiltzen da; bestetik, kezka, ardura edo ezinegonaren zentzukide ere bada; eta, hirugarrenik, atsekabea edo nahigabea adierazteko erabili liteke. Hargatik, haren adiera desberdinak harremanetan jarrita, grinak praktika musikalaren bidez konfiguratzen den politika esanahitzeko eta egiteko modua bil dezake. Hasteko, gorputza duelako kokaleku eta adierazpide, eta hortaz, gorputzean eta gorputzen bidez egiten den jardun politikoa ematen du aditzera. Jardun kartsua da, apasionatua; garrasiek eta praktika izerberiek adierazten dutenez, amorrua, subertsioa eta plazera elkarlotzen dituen. Era berean, zaurgarritasunaren kontzientziatik eta elkarrekiko dependentziatik abiatuta, minak eta zauriak elkarbanatzeko espazioak sortzen dira, espazio musikal desberdinetan zein egunerokotasunean gorputzutako indarkeriei darraizkien atsekabeak kolektibizatuz, gotorlekuak eraikitzeke. Eta, jardun politikoa orok bezala, ardura du iturburu; ardura indibiduala, elkarrekikoa eta politikoa. Grinek, gainera, ekitera gonbidatzen gaituzte, eszenaren akuilu den ZZE filosofiari erreferentzia egiteko baliagarri dena.

Analisi hau Estebanen (2009) gorputz politikoen kontzeptualizazioarekin harremanetan jarritz, ikerlan honetan behatutako musika-eszena (trans)feministak gorputz politikotzat (pluralean) har litezke. Izan ere, grinaren zentzu zabalak barnebildu dezake irudikapen, irudi, ideia, jarrera, teknika eta jokabide gorputzuen multzo artikulatu bat, maila indibidualean eta kolektiboan gauzatzen den gorputz-konfigurazioak eratzen dituen, pertsona, generoa eta gizarte-harremanen ulkerak bat islatzen dituen, eta errealitateari aurre egin eta berau eraldatzeko modu zehatzak dakartzana.

'Gorputz politiko grinatsuak' lez izendatu ditut, grina adieraren askotariko dimentsioak aintzat hartuta, eszena (trans)feministetan konfiguratzen diren gorputzasunak adierazteko. Pluralak baitira, heterogeneoak, eszena desberdinetan, eta are eszena baten baitan, xehetasun konkretoak eta aldakorak antzeman daitezkeelarik konfigurazio horretan. Baina gorputz politiko gisa izendatu daitezkeela deritzot, orobat, transgresioa, kuestionamendua, berresanahitzea eta salaketa-erreibindikazio-proposamen hirukoa gako konpartituetan eraikitzen baita. Eta, hala, politika (trans)feminista egiteko modu konkreto bat adierazten da, bereizgarritzat dituen amorrua eta zaurgarritasuna lotzen dituzten oihuak, plazeraren ulkerak bat dakarten praktika izerberak eta praktika grinatsuak.

4. Ikerketaren ondorioak

Musika-eszena hauetan, espazio publikoa hartzeko, politika egiteko eta plazeraren bilaketa kolektiborako tresna da musika. Hala, plazera, agentzia, transgresioa eta subertsioa bere gain hartzen eta berresanahitzen duten gorputzasun politiko (trans)feministak azaltzen zaizkigu, sexuazioa eta sexualitatea elementu zentraltzat ez dutenak. Hargatik, politika (trans)feminista gauzatzeko manera propio honekin, politika (trans)feminista bera zabaltzen dela esango nuke, zaurgarritasunaren, plazeraren eta elkarrekikotasunaren potentzialitate politikoa aditzera emanez.

Esku-hartze politikoa gauzatzeko modu berriak materializatzen oten diren galderari erantzutean, zalantzazko baieztapen bat dakusat ondorio lez, azterketa sakonagoa eskatzen duelakoan bainago. Hargatik, ikerlan honetan, esku-hartze politikoaz ondoriorik ateratzekotan, egun euskal testuinguruan eratzen ari diren politika ulertu eta egiteko moduez gako batzuk atera daitezkeela esango nuke, ulkerak eta praktika horren zantzuak agerian uzten dituztenak: antolaketa-forma malguago eta errizomatikoagoak, laguntasuna eta kidetasuna elementu zentraltzat dutenak; amorrua, gorrotoa edo samina xamurtasunarekin eta hauskortasunarekin lotzen dituen politikaren ulkerak bat, zaurgarritasunaren potentzialitate politikoa mahaigaineratzen duena; eta jardun politikoa osotasunean plazererantz zuzentzeko saiakerak.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Hasierako intuizioei jarraiki, testuinguru politiko, sozial eta kulturalaren berri emateko espazio pribilegiatu gisa berresten dira musika-eszena (trans)feministak. Eta hurbilpen etnografiko honetan jasotakoetatik abiatuta, eta sakonki helderik izan ez den beste auzi batzuei ere erreparatuta

(hizkuntza- eta ekonomia-politikak, esaterako), esku-hartze politikoaren sakoneko ikerlerroak irekiz gero euskal jendartean egun konfiguratzeko ari diren aldaketa sozialen berri izan dezakegulakoan nago. Josu Larrinaga (2015) antropologoak dioen bezala, euskal herri-musikak, Euskal Herrian jazotako zenbait aldaketa sozial islatzeaz gain, hauek aurreikusi, performatu, erraztu, bideratu eta moldatu izan ditu. Bide beretik, Euskal Herriko eszena (trans)feministetan gauzatzen ari diren esku-hartze politikoaren sakoneko analisiak, etorkizunera begira formulatzen ari diren galdera berriak erantzuteko gakoak proposatuko dituelakoan.

6. Erreferentziak

- Ahmed, S. (2018). *Vivir una vida feminista*. Edicions Bellaterra.
- Akizu, M. (2023). Euskal musikagintza feministaz zeinbat nota. In Olatz Arbelaitz, Ainhoa Latatu eta Elixabete Perez, V. *IkerGazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea* (161-168. orr). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Alcántara, M. A. (2015). *Una Archiva del DIY (Do It Yourself): Autoedición y autogestión en una fanzinoteca feminista-queer* [Doktorego tesia]. Universidad de Murcia.
- Altuna, M. (2010). *Emakumeak punk-rock taldeetan*. [Master Amaierako Lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aranguren, M., Fernandez, M. eta Lopez, L. (2016). Musika-errebolta feminista, Mefsst! jaialdia azalean. In M. Guillo (Ed.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa: begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeake kolektiboak* (131-152 orr). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Attali, J. (1985). *Noise: The political economy of Music*. University of Minnesota Press.
- Cota, A.S. (2019). Procesos de agenciamiento junto a Stop Represión Granada y un ejercicio de autoetnografía vulnerable. *Papeles del CEIC*, 2019/1(207), 1-19. <http://dx.doi.org/10.1387/pceic.19530>
- Cuello, N. (2023). Políticas críticas de la sexualidad y prácticas artística contraculturales en la escena underground de Buenos Aires durante los años noventa. *RUNAS. Journal of Education & Culture*, 4(8).
- DeChaine, R. (1997). Mapping subversion: queercore music's playful discourse of resistance. *Popular Music & Society*, 21(4), 7-37.
- Epelde, E., Aranguren, M. & Retolaza, I. (2018). *Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Kronika bat*. Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro feminista.
- Esteban, M. L. (2009). Identidades de género, feminismo, sexualidad y amor. Los cuerpos como agentes. *Política y sociedad*, 46(1-2), 2009, 27-41.
- Esteban, M. L. (2015). La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable. *Ankulegi*, 19, 75-93.
- Esteban, M. L. (koord.) (2020). *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Esteban, M. L. (2023). La Kantujira de Donostia. El placer de cantar en grupo en la calle como identidad cultural y forma lúdica de resistencia. *Revista de Antropología Iberoamericana*, 18(2), 311-333.
- Fenster, M. (1993). Queer punk fanzines: identity, community, and the articulation of homosexuality and hardcore. *Journal of Communication Inquiry*, 17(1), 73-94 orr.
- García, N. (2014). *(Des)armando la escena. Narrativas de género y punk*. [Master amaierako lana]. Instituto interuniversitario de Estudios de Mujeres y Género.
- Guilló, M. (koord.) (2016). *Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Guilló, M. (2020). *Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografia bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak*. [Doktorego Tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Larrinaga, J. (2015). Musikak gatazka islatu edota performatu, gatazkak musika ito. *Jakin*, 209, 35-52.
- Lohman, K. (2021). Queer and feminist punk in the UK. In G. McKay eta G. Arnold (Eds.), *The Oxford Handbook of Punk Rock*.
- Lopez, L. (2014). *Agertokia geure egin*. Euskal kulturaren urtekaria 2013. Argia.
- Liska, M. & Martinez, S. (2022). Introducción: Música, activismo feminista y prácticas sonoras en Iberoamérica. *Trans: Transcultural Music Review*, 26, 1-6.
- Luxán, M., Ormazabal, A., Txurruka, U. & Dañoibeitia, O. (2014). Metamilitantzia: Herri mugimenduen baitatik gogoeta. *Jakin*, 203, 93-107.
- Marcus, S. (2010). *Girls to the Front: The True Story of the Riot Grrrl Revolution*. Harper Collins e-books.
- McClary, S. (1991). *Feminine endings. Music, gender and sexuality*. University of Minnesota Press.
- Muelas de Ayala, L. (2023). Prácticas feministas de placer: (Re)configuraciones para el cambio social y el activismo. *Revista de Antropología Iberoamericana*, 18(2), 263-286.
- Muñiz, Elsa (2014). Prácticas corporales, performatividad y género. In Elsa Muñiz (Koord.), *Prácticas corporales, performatividad y género* (9-37. orr). La Cifra Editorial.
- Muñiz, Elsa (komp.) (2015) *El cuerpo: Estado de la cuestión*. La Cifra Editorial.
- Nguyen, M. T. (2012). Riot Grrrl, Race, and Revival. *Women & Performance: A Journal of Feminist Theory*, 22(2-3), 173-196.
- Pink, Sarah (2009). *Doing sensory ethnography*. Sage.
- Retolaza, I. & Gutierrez, I. (2014). Euskal musika larrutuz: gorputz-adierazpen eta gorputz-irudikapenak euskal musikan. In Gema Lasarte eta Ama Alvarez-Uria (Koord), *Gorputza eta generoa: teoria, didaktika eta esperientziak* (165 orr). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ruiz, I. (2022). *‘¡Tía, pero qué haces! Estamos bailando pogo’ Dantza, espazioa eta generoaren inguruko hausnarketa bat*. [Master Amaierako Lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Sharp, M. & Nilan, P. (2014). Queer punx: young women in the Newcastle hardcore space. *Journal of Youth Studies*, 18(4), 451-467.
- Zapata, M. (2023). La fortaleza de la vulnerabilidad. In Maria Zapata & Caro Novella (komp), *Posología: microdosis transfeministas para la salud* (27-40 orr). Txalaparta.